
LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES



EUSKADIKO EGOERA SOZIOLABORALA

2020KO I. SEIHILEKOA

Seihilekoko lehen txosten hau 2020ko urtarriletik ekainera bitarteko aldiari buruzkoa da, eta Lan Harremanen Kontseiluaren informazio soziolaboraleko planaren barruan sartzen da. EAEko egoera soziolaborala ikuspegiarekin eta xehetasunez aztertzea du helburu, betiere, enplegua eta negoziazio kolektiboa funtsezko ardatz hartuta.

2020ko iraila

1. JARDUERA EKONOMIKOAREN BILAKAERA 4

**2. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA, GATAZKAK ETA
ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK 6**


3. ENPLEGUA ETA KONTRATAZIOA 20

1. JARDUERA EKONOMIKOAREN BILAKAERA

EAEko barne produktu gordina (BPGda) lehen hiruhilekoan % 3,2 txikitu ostean urtetik urtera, Eustat Euskal Estatistika Erakundearen arabera, 2020ko bigarren hiruhilekoan euskal ekonomiaren jarduerak % 19,5 egin du behera. Azken urteetako historian aurrekaririk gabeko beherakada izan da, COVID-19ak eta pandemiari aurre egiteko martxan jarritako konfinamendu- eta hibernazio-neurriek eragindako krisi ekonomikoaren ondorioz.

Lan egindako orduen kopurua, berriz, lanaldi osoko lanpostuetan neurtua, % 17,2 murriztu da urtearen bigarren hiruhilekoan, 2019ko hiruhileko berarekin alderatuta.

Bestalde, ekainean, Gizarte Segurantzako afiliazioa % 3,1 txikitu zen aurreko urteko hil berarekin alderatuta. Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak (ABEEEak) dituzten langileak ere afiliazioaren barruan daude, enpresarekin duten lan-harremanari eusten diotelako eta, beraz, jarduneko langiletzat hartzen direlako.



Industria-jardueraren bilakaerari dagokionez, aipatu behar da EAEko industria-produkzioaren batez besteko beherakada % 16,9koa izan dela, urtetik urtera, lehen sei hiletan. Ondasunen xede ekonomikoari dagokionez, energia-produkzioa % 4,1 murriztu da, kontsumo-ondasunena % 8 eta ekipamendu-ondasunena % 18. Tarteko ondasunen produkzioak izan du beherakadarik handiena, % 21,9koa, alegia.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenen arabera, BPGd-a % 8,7 txikituko da 2020an, eta 2021ean % 6,7 hazi. Halaber, enplegua % 7 txikitzea aurreikusten dute 2020rako, eta 2021ean okupazioa % 5,4 handitzea.

Espainiako ekonomian, bestalde, BPGd-a % 22,1ekoa izan da bigarren hiruhilekoan, EINen aurrerapenaren arabera. 2020ko urte osorako, Espainiako Bankuak bi egoera posible aurreikusten ditu, -% 10,5 eta -% 12,6 arteko beherakadekin, baldin eta eusteko neurri zorrotzagoak aplikatu behar badira.

Nazioarteko ekonomia nagusien bilakaerari buruzko aurreikuspenak ere oso ezkorrak dira 2020ko itxierarako. Txosten hau egiteko unean, Nazioarteko Diru Funtsak (NDFk) % 10,2ko beherakada espero du euroguneko BPGd-an. Frantzia, Italian eta Alemanian % 12,5eko, % 12,8ko eta % 7,8ko beherakadak espero ditu, hurrenez hurren.


Europar Batasunak (EBk) duela gutxi onartutako pizgarri handiei eta Europako Banku Zentralak abian jarritako programei esker, txikiagoak izan daitezke jarduera ekonomikoan aurreikusitako beherakadak. Edonola ere, ziurgabetasun-maila handia dago ekonomiaren bilakaeraz, eta ekonomiaren bilakaera honako hauek baldintzatuko dute, besteak beste: sortzen diren berragertzeek, ezartzen diren mugikortasun-murrizketek, laguntza-plan horiek benetan abian jartzeak eta txertoa garatzeko behar den denborak.

2. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA, GATAZKAK ETA ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA

2.1. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA

2020ko lehen sei hilekoaren amaieran, langileen % 46,4k eguneratuta zuen hitzarmena (erabateko indarraldian), % 38,5ek luzapen-egoeran eta, azkenik, langileen % 15,1ek indargabetuta.



¹ 2016. urtea: Urtarrilaren 1erako atzeraeraginezko ondorekin eguneratutako datuak, Bizkaiko Merkataritza Orokorraren Hitzarmen Kolektiboa erregistratu ondoren.

Indarreko hitzarmenak: Negoziatzaileek adostutako aplikazio-epe arruntaren barruan dauden hitzarmenak.

Indarraldia luzatuta duten hitzarmenak: Indarraldi arrunta amaitu ondoren luzapen-egoeran edo aurreraeraginean dauden hitzarmenak.

Iraungitako hitzarmenak: Salatu ondoren eta aurreraeragin-aldia —legezkoa edo ohikoa— igaro ondoren indarraldia galdu dutenak, beren eremuari estaldura ematen dion goragoko eremuko hitzarmenik egon gabe.


Hitzarmenak eguneratuta dituzten langileen eta hitzarmenak iraungita dituztenen ehunekoa azken urteetako onena da. Hala ere, esan behar da 2019an sinatutako hitzarmen-kopuru handiaren ondorio dela egoera hori, 2020rako ere indarrean baitaude. Horietako asko hitzarmen sektorialak dira; izan ere, urte honetan zehar aurrerapen gutxi izan ditu negoziazio kolektiboak, COVID-19aren ondorioz neurri batean.

Izan ere, Bizkaiko Industria Siderometalurgikoaren hitzarmena, ia 40.000 langile babesten dituena, alde batera utzita —aurten erregistratu da, baina 2019an adostu zen—, % 9,1etik % 2,5era jaitsi da lehenengo sei hiletan hitzarmenak berriro dituzten langileen ehunekoa.

Egia esan, Bizkaiko Industria Siderometalurgikoaren hitzarmena izan da lehen sei hiletan eta 2020rako ondorioekin EAEn erregistratutako hitzarmen sektorial bakarra. Enpresakoak dira arlo horretan erregistratutako gainerako hitzarmenak.

EAEn eragina duten estatu-mailako 10 hitzarmen sektorial erregistratu ziren epealdian. Hiru mila langile inguru babestu zituzten hitzarmen horiek.

3. GRAFIKOA.
EAE-KO LANGILEEN EHUNEKOAK, HITZARMENAREN
(SEKTORIALA/ENPRESAKOAK) INDARRALDIAREN ARABERA




Enpresaren arloari erreparatuz, aurreko urtekoaren antzekoa da egoera: langileen % 49,8k hitzarmen eguneratuak zituen 2020ko ekainaren amaieran; % 49,3k 2019an. Esan beharra dago esparru horretako negoziazioa egonkorragoa dela oro har, eta aldaketa gutxiago dituela urte batetik bestera.

Iaz EAEn egindako negoziazio sektorialaren aurrerapen horri esker, hobetu egin da gure erkidegoko esparru esklusiboko negoziazio kolektiboa, eta EAEn hitzarmen negoziatuak indarrean dituzten langileen ehunekoa ia 5 puntu handiagoa da iazko lehen seihilekoan baino (% 37,6koa 2019an eta % 42,5ekoa 2020an).

EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenez adierazi behar da 2020ko lehen seihilekoaren amaieran hobera egin dutela, aurreko urtearekin alderatuta. Dena den, ez dira 2018ko mailetara iritsi. Esparru horretako langileen % 56,3k eguneratuta du hitzarmena; 2019ko ekainean, ordea % 51,2 ziren.


4. GRAFIKOA.
EAE-KO LANGILEEN EHUNEKOAK, HITZARMENAREN (EAE-KO/AESTATUKO) INDARRALDIAREN ARABERA(1)



(1) EAE: EAEn negoziatutako hitzarmenak.

Estatu: EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenak.

5. GRAFIKOA.
2020KO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA EAE-N, LURRALDE-
ESPARRUEN ARABERA



2020-01-01eko datuak

2020-06-30eko datuak

- Hitzarmena iraungita duten eta babesteko goragoko eremuko beste hitzarmenik ez duten langileen ehunekoa.
- 2020an indarraldi luzatua eta berrizteko zain dauden hitzarmenen eraginpeko langileen ehunekoa.
- Hitzarmena indarrean duten langileen ehunekoa.

Halaber, nabarmentzekoa da gure erkidegoan eragina duten estatu-mailako hitzarmenak iraungita dituzten langileen kopuruak izandako beherakada: duela urtebete, % 10,3 ziren; 2020ko ekainaren amaieran, berriz, % 1,1. Ingeniaritza Enpresa eta Azterlan Teknikoetako Bulegoen Hitzarmena, 16.000 pertsona baino gehiago babesten dituena, sinatzearen ondorio da murrizketa hori. Hitzarmena 2019ko bigarren seihilekoan sinatu zen, eta, Bizkaiko eta Gipuzkoako bulegoen hitzarmenak iraungita zeudenez, langile horietako batzuk estatu-mailako hitzarmenak hartzen ditu barne.

Lurralde-eremuek ekitaldiaren hasieratik izan duten bilakaera aztertzen badugu, ikusiko dugu lehen sei hil hauetan Bizkaian izan dela aurrerapen erlatiborik handiena; izan ere, indarreko hitzarmenak dituzten langileen ehunekoa % 61,6ra iritsi da Bizkaian, batez ere, lehen adierazi bezala, 2020an erregistratu zelako lurralde horretako industria siderurgikoko hitzarmena.

Lurralde arteko eremuan, ostera, ez da aurrerapenik izan, eta, ekainaren amaieran, ekitaldiaren hasieran bezala zegoen egoera; izan ere, langileen % 82,1ek luzapen-egoeran zuen hitzarmena. Arlo horretan daude, batik bat, Gizarte Ekimenezko Ikastetxeen hitzarmena —2020ko uztailean sinatu zen— eta Ikastolena, berritzeko bidean dagoena.

EAEko gainerako eremuetan, zenbait enpresa-hitzarmen sinatu dira; horiek izan dira aurrerapen bakarrak.

Hala, Arabako lurralde historikoan, 18 enpresa-hitzarmen sinatu dira; horren ondorioz, urte hasierako % 38,9tik % 41,8ra igaro da hitzarmenak eguneratuta dituzten langileen ehunekoa.


Gipuzkoan, bestalde, 23 enpresa-hitzarmen sinatu dira; hori dela eta, langileen % 23,6k zuen hitzarmena eguneratuta ekainaren amaieran. Hitzarmenak iraungita dituzten langileen ehunekoa oso handia da, batez ere Industria Siderometalurgikoko Hitzarmena (30.000 langile baino gehiago biltzen dituena), Ostalaritzakoa (12.000 langiletik gorakoa) eta Bulegoen Hitzarmena (7.500etik gora langilekoa) bertan behera geratu direlako. Gainera, langile horiek ez daude goragoko mailako hitzarmenek babestuta.

Bestalde, EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenei dagokienez (10 hitzarmen sektorial eta 19 enpresa-hitzarmen sinatu dira), seihileko honetan % 51,8tik % 56,3ra igaro da hitzarmenak eguneratuta dituzten langileen ehunekoa. Babestutako pertsonen kopuruari erreparatuta, hauek dira

nabarmentzekoak: Zerga Teknikarien eta Aholkularien Hitzarmen Sektoriala, 1.600 langile baino gehiago babesten dituena, eta Construcciones y Auxiliar del Ferrocarril (CAF) enpresarena; 3.300 langiletik gora ditu enpresa horrek gure erkidegoan.

6. GRAFIKOA.
EAE-N^o ETA ESTATUAN INDIRREAN DAUDEN HITZARMENETAKO SOLDATA-IGOEREN EHUNEKOA

Urteko igoera metatua, hiruhilekoko azken egunean



*EAE: EAEn negoziatutako hitzarmenetan eta EAEn eragina duten estatukoetan itundutako soldata-igoera.

Lehen sei hileko honetan itundutako soldata-igoera % 1,86koa izan da 2020an, EAEn indarrean dauden hitzarmen guztietarako; Estatuan indarrean dauden hitzarmenetarako hitzartutakoa (% 1,96koa) baino igoera txikiagoa izan du.

2016., 2017. eta 2018. urteetan, antzekoak izan ziren eremu batean eta bestean itundutako soldata-igoeren arteko aldeak; EAEn aplikatu beharreko hitzarmenetakoak pixka bat handiagoak izan ziren. Hala ere, Estatu osoan indarrean zeuden hitzarmenetan itundutako igoerak EAEn aplikatu beharrekoak baino handiagoak izan ziren 2019an (% 2,33koa Estatuan eta % 2koa EAEn, ekitaldia ixtean). 2020ko lehen sei hilekoan, murriztu egin dira alde horiek, nahiz eta estatuko hitzarmenen gehikuntzak oraindik ere pixka bat handiagoak izan.

Eremu funtzionalen arabera, enpresa-eremuko soldata-igoera hitzarmen sektorialetakoa baino txikiagoa izan da (% 1,73koa eta % 1,89koa, hurrenez hurren).

1. KOADROA.

**EAE*. 2020AN INДАРREAN DAUDEN ETA ERREGISTRATU DIREN
HITZARMENETAKO SOLDATA-IGOERAREN EHUNEKOA**

	2020an indarrean	2020an erregistratuak
Enpresa	% 1,73	% 2,08
Sektorea	% 1,89	% 2,26
Guztira	% 1,86	% 2,22

*EAEEn negoziatutako hitzarmenetan eta EAEEn eragina duten estatukoetan itundutako soldata-igoera.

2020an erregistratu diren hitzarmenetan jasotako soldata-igoera % 2,22koa izan da EAEEn, eta, berriz ere, igoerak handiagoak izan dira hitzarmen sektorialetan (% 2,26koa) enpresakoetan baino (% 2,08koa).

Edonola ere, aipatu behar da igoera horiek EAEko urtetik urterako inflazioaren (-% 0,2) eta lehen seihilekoko batez besteko inflazioaren² (% 0,2) gainera daudela.

2.2. HITZARMEN KOLEKTIBOEN EZ-APLIKATZEAK³ EAE-N

*Hitzarmen Kolektiboen Erregistroan*⁴ eskuragarri dagoen informazioaren arabera, 2020ko lehen seihilekoan hitzarmenen 8 ez-aplikatze soilik erregistratu ziren EAEen; 2019ko epe berean, berriz, 7 aurkeztu ziren. 2020an, 99 pertsonari eragin zieten guztira, eta 45 pertsonari 2019an.

2019. urtearekin alderatuta, nabarmen handitu da ez-aplikatzeek eragindako langileen kopurua (+% 120), baina oraindik ere oso garrantzi txikiko datua da, hitzarmenak indarrean dituzten langileen kopurua kontuan hartzen badugu.

² Urteko batez besteko inflazio metatua, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta.

³ 2012ko lan-erreformak enpresei aukera eman die hitzarmen aplikagarrian aurreikusita dauden lan-baldintza jakin batzuk enpresaren ez aplikatzeko, ekonomia-, teknika-, antolakuntza- edo produkzio-kausak daudenean eta enpresaren eta langileen ordezkariek ados jartzen badira. Adostasunik lortzen ez bada, desadostasuna hitzarmenaren batzordera bidera daiteke. Batzorde horrek esku hartzen ez bada edo akordiorik lortzen ez bada, alderdiek Precora jo beharko dute. Precok ez bada desadostasuna konpontzen, alderdietako edozeinek ORPRICCEra jo ahal izango du (haren egoitza LHKn dago).

⁴ <http://explotacion.mtin.gob.es/regcon/pv/index.htm>

Estatu osoan, behera egin du ez-aplikatzeen kopuruak: 2019ko lehen sei hilekoan, 662 ez-aplikatze erregistratu ziren; 2020ko aldi berean, berriz, 330 (-% 50,2). Aitzitik, gora egin du eragindako langileen kopuruak: 2019an, 12.454 ziren eta 2020an 13.506 (+% 8,4).

Lehen sei hil hauetan EAEko lan-agintaritzan gordailututako ez-aplikatze guztietan, ados jarrita zeuden alderdiak. Ez-aplikatze horietako zazpitan, kontsultaldian lortu zen akordio hori; bestean, berriz, hitzarmenaren batzorde parekidean.

Aurreko urteetan bezala, soldataren kopurua izan zen ez-aplikatze gehienen gai nagusia 2020ko lehen sei hilekotan.

Hortaz, aurkeztutako ez-aplikatze guztietan —batean izan ezik—, soldataren kopurua da ez-aplikazioaren arrazoa; 38 langileri eragin zieten guztira. Lanaldia, ordutegia eta lan-denboraren banaketa izan ziren beste ez-aplikatzearen arrazoiak, eta 61 pertsonari eragin zien.


Adierazi behar da, orobat, Estatutuaren arabera Hitzarmen Kolektiboak ez Aplikatzeko Prozedurak Ebazteko Organoak (ORPRICCEk) ez zuela ez aplikatzeko eskaerarik ebatzi lehen sei hilekoan.

Estatuan, ez-aplikatzeen % 94,9tan kontsultaldian lortu zen alderdien arteko akordioa, % 3,6tan hitzarmenaren batzorde parekidean eta % 0,9tan alderdi biko organo baten bitartekaritzaren edo laudoaren bidez. Azkenik, bi ez-aplikatze soilik (guztizkoaren % 0,6) izan ziren hiru alderdiko organo batek hartutako erabakiaren ondorio.

Soldataren zenbatekoa (bakarrik edo beste kontzeptu batzuekin lotuta) Estatuan gordailututako ez-aplikatzeen % 69,7ren arrazoa izan zen, eta langileen % 30,8ri eragin zion. Lanaldiarekin, ordutegiarekin eta lan-denboraren banaketarekin lotutako gaiak, oster, ez-aplikatzeen % 10,3ren atzean egon ziren (langileen % 49,6ri eragin zioten).

7. GRAFIKOA.

EZ-APLIKATZEAK ERAGINDAKO PERTSONAK



Bi sektoretan soilik gertatu ziren ez-aplikatzeak: zerbitzu-sektorean (5 ez-aplikatze eta eragindako 22 langile) eta industria-sektorean (3 ez-aplikatze eta eragindako 77 langile). 2020ko lehen sei hilekoan, EAEn ez zen ez-aplikatzerik izan ez eraikuntzan ez lehen sektorean.

Nahiz eta 2020ko lehen sei hilekoan ez-aplikatzeak eragindako langileen kopuruak gora egin duen EAEn, esan behar da oso enpresa gutxi erabili dituztela ez-aplikatzeak COVID-19ak sortutako zailtasunei aurre egiteko; izan ere, nabarmen gehiago erabili dituzte aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen (ABEEE-en) barne-malgutasuneko neurriak.


LAN-GATAZKAK ETA ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK

2.3. GREBAK

Lehenik eta behin esan behar da EAEn 2020ko urtarriletik maiatzera bitartean egindako greben datuak soilik genituela txosten hau egiten ari ginenean; beraz, aurreko ekitaldiekin alderaketak egiteko, lehen bost hiletako datuak hartu ditugu kontuan.

2020ko urtarriletik maiatzera bitartean, COVID-19ak geldialdi handia eragin du jarduera ekonomikoan; baina, horrez gain, nabarmen murriztu da greben, eragindako langileen eta lan egin gabeko egunen kopurua.

8. GRAFIKOA.
EUSKADI. GREBEN, ERAGINDAKO LANGILEEN ETA LAN EGIN GABEKO EGUNEN KOPURUA, URTARRILETIK MAIATZERA



Iturria: Lan eta Enplegu Saila. Eusko Jaurlaritza.

2020ko eta 2019ko datuak alderatuta ikus daiteke txikitu egin direla greba-kopurua, eragindako langileen zenbatekoa eta lan egin gabeko egunak: hurrenez hurren, % 25,4, % 95,2 eta % 90,8. Hala ere, kontuan izan behar da aurreko urtean lan egin gabeko egunen kopuru handia urte hartan izandako bi gatazka sektorialen ondorio izan zela batez ere; hauek dira: EAeko Gizarte Ekimeneko Irakaskuntza Zentroena eta Bizkaiko Bulegoa.

2020. urteko lehen bost hiletan, gatazkarik gehienak enpresamailakoak izan ziren; izan ere, sektorean bi greba baino ez ziren egin Bizkaian: Kirolerako lokal eta zelaien sektorean eta Etxez etxeko laguntza-zerbitzuarenean. Guztira, 81 langileri eragin zieten greba horiek, eta 359 lanegun galdu ziren.

Jarduera-sektoreen arabera, zerbitzu-sektorea izan zen, berriz ere, kaltetuena: greben % 80,2, parte-hartzaileen % 53,9 eta lan egin gabeko egunen % 76,4.

Ondoren, industria izan zen 2020ko bigarren sektorerik kaltetuen: greben % 17,6, eragindako langileen % 45,4 eta galdutako lanaldien % 20,8. Eraikuntzaren sektorean, berriz, grebak % 1,1 soilik izan ziren, eragindako langileak % 0,5 eta lan egin gabeko egunak % 2,7. Nekazaritza-sektorean, azkenik, grebak % 1,1, parte-hartzaileak % 0,2 eta galdutako lanaldiak % 0,1 izan ziren.

Aurreko urteetan bezala, greben ondorioz lan egin gabe geratu ziren egun gehienak, % 89,3, negoziazio kolektiboko prozesuetatik eratorritako gatazken ondorio izan ziren.

2.4. PRECO-N AURKEZTUTAKO GATAZKAK

Lan Harremanen Kontseiluak kudeatzen du, bere hiru lurralde-zerbitzuen bidez, Lan Gatazkak Konpontzeko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide arteko Akordioa, Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten sindikatu- eta enpresa-konfederazio guztiek sinatutakoa 2000ko otsailaren 16an (2000ko apirilaren 4ko EHAA, 66. zk.).

2020ko lehen seihilekoan 273 eskaera aurkeztu ziren, aurreko urtean baino bost gehiago tarte berean, eta 130.653 langile izan ziren haien eraginpean (2019an, 54.560). Hau da, aurreko urtean baino %1,9 eskaera gehiago aurkeztu ziren eta %139,1 langile gehiago izan ziren haien eraginpean.

Langileen kopuruaren igoera hori ez da sektoreko gatazken hazkunderen ondorio, Bizkaian metalaren sektorean aurkeztutako arbitraje-prozedura baten ondorio baizik, ia 50.000 pertsonari eragin ziona. Era berean, enpresa-prozeduretan ikusten da horien batez besteko tamaina handitu egin dela.

COVID-19 koronabirusaren agerpenak eragina izan du Precora aurkeztutako eskaeren tipologia, eta aldi horretan hainbat gatazka aurkeztu dira pertsonen babes- eta segurtasun-neurriekin, ordaindutako baimenaren berreskurapenarekin, ERTEen baldintzekin eta garapenarekin, eta krisiak lan-egutegietan eta -ordutegietan izan duen inpaktuarekin lotuta; halaber, gatazkak aurkeztu dira alarma-egoeraren indarrean dela onartutako araudiaren aplikazioarekin lotuta.

Halaber, pandemiaren ondorioz, martxoan, apirilean, maiatzean eta ekainean, LHKren bulegoak ez ziren jendearentzat irekita egon topaketak egiteko, eta horiek modu birtualean egin ziren, plataforma telematikoak erabiliz.


Ikuspegi kualitatibotik, adiskidetze-topaketak modu telematikoan garatzea elkarrizketa-modalitate berrizat

hartzen ari da gatazka kolektiboen esparruan, eta horrek ez du eragozten negoziazio-prozesu erreal eta eraginkorrak garatzea, eta aukera ematen du akordioak lortzeko, gatazkaren baldintzek eta alderdien borondateak horretarako aukera ematen dutenean, topaketa birtualak topaketa- eta aurrez aurreko harreman-modalitate baten aurrean dituen mugak jakinda ere.

2020ko urtarrila-ekaina aldiari amaitutako gatazkei dagokienez, adostasunen ehunekoak gatazken %20,5ekoa izan da (%24,2koa aurreko urteko lehen seihilekoan), eta langileen %47,6ri eragin die (%15,5i, 2019an).

2020. urteko lehen seihilekoko datu esanguratsu gisa, aipatu behar da alderdiek gatazka kolektibo utzi dituztela Lan Harremanen Kontseiluko elkargoko profesionalen esku, adiskidetze-, bitartekaritza- edo arbitraje-prozeduren eraginpean; izan ere, seihileko honetan amaitutako prozeduren %6,4tan baino ez da horrelako prozeduretara jo.

9. GRAFIKOA.
PRECO-N AURKEZTUTAKO GATAZKEN ETA ERAGINDAKO LANGILEEN
KOPURUA



Iturria: Lan eta Enplegu Saila. Eusko Jaurlaritza.

Hala, 2020ko lehen seihileko horretan, 7 gatazka adiskidetze-prozeduraren eraginpean jarri dira, eta horietako 5 afiliazio sindikala egiaztatzeko prozedura bereziari buruzkoak izan dira. Era berean, bitartekaritzako 6 prozedura eta arbitrajeko 2 prozedura hasi dira.

Bada, guztira, 15 prozedura izan dira, eta 2019an, tarte berean, 18 prozedura hasi ziren profesional batek esku hartuta.

2.5. ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK


Martxoaren 5etik ekainaren 26ra bitartean, enplegu-erregulazioko 26.710 espediente aurkeztu ziren EAEn, eta espediente horiek 199.952 langileri eragin zieten.

Langile horietako gehienei (% 99,6ri) aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak (ABEEE) egin zitzaizkien; 806 langileri (% 0,4ri) bakarrik egin zitzaizkien lan-harremana azkentzeko espedienteak.

Epealdi horretan aurkeztutako 26.655 ABEEE-etatik, 24.052 (% 90,2) ezinbestekoak izan ziren, eta 187.306 langileri eragin zieten. Gainerako ABEEEek arrazoi teknologikoak (teknikoak, antolakuntzakoak edo produkziokoak) edo ekonomikoak izan zituzten.

Lehen sei hiletan, eragindakoen kopurua aurreko krisietakoa baino askoz handiagoa izan da; izan ere, 2008 osokoa (68.722 pertsonakoa) baino ia hiru aldiz handiagoa izan da, eta 1993koa (86.166 pertsonakoa) halako bi baino gehiago. Krisialdi honen intentsitate handiagoaren ondorio izan da hori, enpresa gehienek erabili baitute barne-malgutasuneko neurri hori, COVID-19aren eraginari aurre egiteko.


10. GRAFIKOA.
ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK ERAGINDAKO PERTSONAK
EAE-N (ABEEE-AK ETA EEE-AK). GUZTIRA ERAGINDAKOAK URTEKO*



*2020an, martxoaren 5etik ekainaren 26ra bitartean eragindako pertsonak.

Iturria: Lan eta Enplegu Saila. Eusko Jaurlaritzak.

Aipatu behar da EAEko sektore pribatuko soldatapekoen herena, gutxi gorabehera, enplegu-erregulazioko espediente batean egon dela hil hauetan, baina, ekainaren amaierarako, haien % 60 lanpostura itzuli zela.



2020ko lehen seihilekoan izapidetutako espedienterik gehienak (guztizkoaren % 84,8) 10 langilera arteko enpresek egin zituzten; baina, kaltetuen kopurua kontuan hartzen badugu, enpresa txiki horietako langileak (64.790) enplegu-erregulazioko espedienteek eragindako langile guztien % 32,4 baino ez dira izan.

Bigarren tokian, 11 eta 50 langile bitarteko enpresak daude: espedienteen % 12,8 egin zuten, eta eragindako pertsonen % 30,7 hartu zuten barne. Enpresarik handienek (50 langile baino gehiagokoek) espediente guztien % 2,4 egin zituzten, eta langileen % 36,9ri eragin zioten.

Sektoreei erreparatuta, zerbitzu-sektorea da nagusi, bai espedienteen kopuruari dagokionez (% 83,5), bai eragindako langileen kopuruari dagokionez (126.403, kopuru osoaren % 63,2). Ondoren, industria dago; espediente gutxiago egin zuen (% 10,9), baina espediente horiek 65.831 pertsonari eragin zieten (% 32,9). Eraikuntza eta lehen sektorea azken tokian daude: espedienteen % 5,3 eta eragindako langileen % 3,6 eraikuntzan, eta % 0,3 eta % 0,2, hurrenez hurren, nekazaritzan eta arrantzan.

3. ENPLEGUA ETA KONTRATAZIOA


Atal honetan, enpleguaren bilakaera aztertuko dugu, batez ere jakinarazitako kontratazioaren eta Gizarte Segurantzako afiliazioaren bidez.

Halaber, erregistratutako langabeziaren bilakaera aztertuko dugu, bai eta, horren ildoan, Eustatek hiru hilean behin argitaratzen duen BJaren (Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren) emaitza nagusiak ere.

3.1. JAKINARAZITAKO KONTRATAZIOAREN BILAKAERA


EAEn 2020ko lehen sei hilekoan jakinarazitako kontratuen datuek erakusten dutenez, osasun-krisiak inpaktu handia izan du lan-merkatuan.

Hala, urteko lehen bi hiletan, EAEn jakinarazitako kontratuen batura % 0,4 handitu zen 2019an jakinarazitakoekin alderatuta; izan ere, urte horretan, 1.008.175 kontratu formalizatu ziren, azken urteetako kopururik handiena.



Hala ere, martxoan pandemia agertzearen ondorioz, joera hori goitik behera aldatu zen, eta martxoan jakinarazitako kontratazioak % 25,3 egin zuen behera, aurreko urteko hil berarekin alderatuta.

Beherakadarik handienak apirilean eta maiatzean gertatu ziren, % 65,3koa eta % 62,7koa, hurrenez hurren. Hil horietan 106.911 kontratu gutxiago egin ziren 2019ko apirilean eta maiatzean baino.



Aurreko urtearekin alderatuta, ekainean beherakada txikiagoa izan zen aurreko bi hiletan baino; hala ere, jakinarazitako kontratuen bolumena 2019ko ekainean jakinarazitakoa baino nabarmen txikiagoa izan zen: – % 45koa.

Oro har, urtarrilean eta otsailean izandako gorakada alde batera utzita, 2020ko urtarriletik ekainera bitartean sinatutako kontratuen kopurua % 34,4 txikitu zen, 2019ko lehen sei hilekoan sinatutakoekin alderatuta.

⁵ Tasa leunduak erabiltzen direnez, ausazko gorabeherak partzialki ezabatzen dira eta joeratik kanpoko datuak baztertu egiten dira; hartara, joeraren noranzkoa hobeto zehaztu daiteke.

2. KOADROA.
EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATUEN KOPURUA KONTRATU-MOTAREN ARABERA

	2019KO I. SEIHILEKOA	2019KO I. SEIHILEKOKO BANAKETA	2020KO I. SEIHILEKOA	2020KO I. SEIHILEKOKO BANAKETA	URTETIK URTERAKO ALDAKUNTZA
JAKINARAZITAKO KONTRATUAK	487.565	% 100,0	319.630	% 100,0	–% 34,4
Mugagabeak	42.030	% 8,6	29.029	% 9,1	–% 30,9
Aldi baterakoak	445.535	% 91,4	290.601	% 90,9	–% 34,8

Iturria: EEZP.

Kontratu-motaren araberako azterketak erakusten digu aldi baterako kontratuen beherakada kontratu finkoena baino pixka bat handiagoa izan zela (–% 34,8koa eta –% 30,9koa, hurrenez hurren), nahiz eta jaitsiera nabarmena izan zen bietan.

Jarduera-sektoreen arabera, beherakada antzekoa izan zen industrian (% 36,8koa) eta zerbitzu-sektorean (% 35koa). Nekazaritzan eta eraikuntzan, berriz, beherakadak txikiagoak izan ziren (hurrenez hurren, % 10,0koa eta % 20,9koa).

3. KOADROA.
EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATUEN KOPURUA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA

	2019KO I. SEIHILEKOA	2020KO I. SEIHILEKOA	URTETIK URTERAKO ALDAKUNTZA
JAKINARAZITAKO KONTRATUAK	487.565	319.630	–% 34,4
Nekazaritza	6.959	6.263	–% 10,0
Industria	78.142	49.368	–% 36,8
Eraikuntza	17.950	14.195	–% 20,9
Zerbitzuak	384.514	249.804	–% 35,0

Iturria: EEZP.

Jarduera-atalen arabera, industria-sektorearen barruan, manufaktura-industrian izan da jaitsierarik handiena: 28.015 kontratu galdu dira (–% 37,2) 2019ko lehen sei hilekoarekin alderatuta; zerbitzu-sektorean, berriz, beherakadarik handienak ostalaritzan gertatu dira,

45.559 kontratu gutxiago (-% 55,1) egin baitira. Edonola ere, jarduera ekonomikoa osatzen duten 21 ataletan egin du kontratazioak behera, guzti-guztietan.

4. KOADROA.

EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATUAK LANALDI-MOTAREN ARABERA

	2019KO I. SEIHILEKOA	2020 I. SEIHILEKOA	URTETIK URTERAKO ALDAKUNTZA
JAKINARAZITAKO KONTRATUAK	487.565	319.630	-% 34,4
Lanaldi osokoak guztira	289.242	196.629	-% 32,0
Lanaldi partzialekoak guztira	192.815	120.297	-% 37,6
Aldizkako finkoak guztira	1.471	785	-% 46,6
Praktikak eta prestakuntza	4.037	1.919	-% 52,5

Iturria: EEZP.

Lanaldi-motaren arabera, beherakada zertxobait handiagoa izan da lanaldi partzialeko kontratuetan (% 37,6koa) lanaldi osokoetan baino (% 32,0koa). Beherakadarik handienak praktika- eta prestakuntza-kontratuetan gertatu dira (% 52,5koa), baita aldizkako kontratu finkoetan ere (% 46,6koa). Hala ere, kontuan hartu behar da jakinarazitako kontratazio osoaren % 1 inguru osatzen dutela bi modalitate horiek.

Lehen seihilekoan, kontratazioaren beherakada bera gertatu zen emakumeen eta gizonen artean (% 34,8koa). Aurreko ekitaldietan bezala, emakumeek lanaldi partzialeko kontratu gehienak sinatu zituzten (% 66,6); lanaldi osoko kontratuetan, berriz, gizonen proportzioa nabarmen handiagoa izan zen (% 61,3koa).

5. KOADROA.

EAE. ALDI BATERAKO KONTRATUAK IRAUPENAREN ARABERA

	7 EGUNEKOA EDO TXIKIAGOA	8 EGUN ETA HILABETE ARTEKOA	HILABETE ETA 3 HILABETE ARTEKOA	3 HILABETE ETA 6 HILABETE ARTEKOA	6 HILABETE ETA URTEBETE ARTEKOA	URTEBETETIK GORAKOA	ZEHAZTU GABEA	GUZTIRA
2019ko I. seihilekoa	172.944	49.201	35.316	33.625	11.581	1.472	141.396	445.535
2020ko I. seihilekoa	100.325	37.001	25.501	19.715	7.058	1.274	99.727	290.601
Aldea	-72.619	-12.200	-9.815	-13.910	-4.523	-198	-41.669	-154.934
Aldakuntzaren %-a	-% 42,0	-% 24,8	-% 27,8	-% 41,4	-% 39,1	-% 13,5	-% 29,5	-% 34,8

Iturria: EEZP.

2019ko eta 2020ko lehen sei hilekoen artean aldi baterako kontratuetan izandako beherakada aztertzen badugu iraupena kontuan hartuta, beherakada orokorra izan dela egiaztatuko dugu.

Gehien jaitsi direnak 7 egun edo gutxiago irauten dutenak dira (hirugarren sektorean asko erabiltzen dira), % 42 txikitu baita haien kopurua. Hiru eta sei hilabete bitarteko kontratuek (% 41,4koa) eta sei hilabete eta urtebete bitartekoek (% 39,1ekoa) ere beherakada handiagoa izan dute batezbestekoa baino. Urtebetetik gorako kontratuen kopurua txikitu da gutxien; hain zuzen, % 13,5.

Azken batean, ondorio gisa esan dezakegu martxotik aurrera nabarmen txikitu zela sinatutako kontratuen kopurua, pandemiaren ondoriozko krisiaren eraginez, eta horrek inpaktu handiagoa izan zuela industrian eta zerbitzuetan gainerako sektoreetan baino. Beherakada horrek gizonei zein emakumeei eragin zien, eta zertxobait handiagoa izan zen aldi baterako kontratuetan eta lanaldi partzialeko kontratuetan, baita iraupen laburragoko kontratuetan ere.


3.2. GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA

Gizarte Segurantzako guztizko afiliazioa (hileko batezbestekoa) % 3,1 jaitsi zen urtetik urterako datuei dagokienez, 2020ko lehen sei hilekoaren amaieran. Horrek esan nahi du 30.523 afiliatu galdu direla aurreko urteko hil berarekin alderatuta; beraz, 942.894 afiliatu zeuden Gizarte Segurantzaren 2020ko ekainean.

Afiliatuen galera ertain horren arrazoietakoa bat ABEEE-en estaldura handia da; izan ere, horri esker, espediente horiek eragindako langileek Gizarte Segurantzaren jarraitu dute alta emanda.

Afiliazioaren beherakada handiagoa izan zen gizonen artean (% 3,8koa) emakumeen artean baino (-% 2,4koa). Kopuru absolutuetan, 19.719 eta 10.804 afiliazio gutxiago daude, hurrenez hurren, gizonen eta emakumeen artean, 2019ko ekainarekin alderatuta.

14. GRAFIKOA.
GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA EAE-N
(HIL BAKOITZEKO BATEZBESTEKOA)



Iturria: Gizarte Segurantza.


Afiliazio-erregimenaren arabera, Araubide Orokorreko afiliazioetan izan zen jaitsierarik handiena, urtetik urterako % 3,5eko beherakada izan ondoren; aldiz, Langile Autonomoen Araubide Berezian, % 1,6koa izan zen beherakada.

Ekainaren amaierako datuek erakusten dutenez, kontratu mugagabeak dituzten Araubide Orokorreko afiliatuen⁶ kopuruak % 1 egin zuen gora 2019ko ekainarekin alderatuta, eta aldi baterakoak dituztenen kopuruak % 16,2 behera.

Alde batetik, beherakada egon da kontratazioetan eta, beste batetik, kontratu mugagabeak dituzten langile asko aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten babespean daude; hori izan daiteke kolektibo horietan aldi baterako kontratua duten langileen kopurua nabarmen txikitu izanaren arrazoia. Aurreko krisietan bezala, aldi baterako kontratua duten pertsonak galtzen dute lehenbizi lanpostua.

Horrenbestez, handitu egin da kontratu mugagabea duten afiliatuen proportzioa, 2020ko ekainean Araubide Orokorreko afiliazioaren % 70,2 baita.

15. GRAFIKOA.
EAE. ARAUBIDE OROKORREKO AFILIAZIOA KONTRATU-MOTAREN ARABERA
(SEIHILEKOAREN AMAIERAKO DATUAK)*



(* Kanpoan utzi dira Nekazaritzako Sistema Berezian eta Etxeko Langileen Sistema Berezian afiliatutakoak eta bestelakoak (funtzionarioak, zaintzaile ez-profesionalak eta akatsak edo ez-egiteak).

Iturria: Gizarte Segurantza.


Orobat, 2020ko ekainean bereziki txikitu da lanaldi partzialeko kontratua duten afiliatuen kopurua, 2019ko hil

⁶ Kanpoan utzi dira Nekazaritzako Sistema Berezian eta Etxeko Langileen Sistema Berezian afiliatutakoak eta bestelakoak (funtzionarioak, zaintzaile ez-profesionalak eta akatsak edo ez-egiteak) kontuan hartu gabe.

berarekin alderatuta (% 9,4); lanaldi osoko kontratua duten Araubide Orokorreko afiliatuen kopuruak, ostera, beherakada txikiagoa izan du (% 3,1ekoa).

Ondorioz, lanaldi partzialeko afiliatuen partaidetza erlatiboa murriztu egin da apur bat, eta, 2020ko bigarren hiruhilekoaren amaieran, Araubide Orokorreko afiliatuen % 21,0 izan da; 2019ko ekainean % 22,1 izan zen.

16. GRAFIKOA.
EAE. ARAUBIDE OROKORREKO AFILIAZIOA, LANALDI-MOTAREN ARABERA
(SEIHILEKOAREN AMAIERAKO DATUAK)*




* Kanpoan utzi dira Nekazaritzako Sistema Berezian eta Etxeko Langileen Sistema Berezian afiliatutakoak eta bestelakoak (funtzionarioak, zaintzaile ez-profesionalak eta akatsak edo ez-egiteak) kontuan hartu gabe.

Iturria: Gizarte Segurantza.

3.3. LANGABEZIA

Lehenik eta behin adierazi behar da aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden pertsonak ez dituztela barne hartzen enplegu-bulegoetan erregistratutako langabeziari buruzko estatistikek eta Eustaten BJaren (Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren) biztanleria langabeari eta langabezia-tasari buruzko datuek; izan ere, langile horiek, enpresarekin duten lan-harremanari eusten diotenez, ez dira langabetzat hartzen estatistika-ondoretarako.

17. GRAFIKOA.
EAE. ENPLEGU-BULEGOETAN ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA (HILEKO AZKEN EGUNA)



Iturria: EEZP.

COVID-19ak eragindako krisiaren inpaktuak bat-bateko aldaketa ekarri du EAEn erregistratutako langabeziaren joeran; izan ere, 2013ko azarotik behera ari zen urtetik urterako kopuruetan.


LANBIDEn izena emanda dauden langabeen kopuruak gora egin du 2020ko martxotik aurrera, eta, ekainean, 144.448 pertsona zeuden izena emanda; hau da, aurreko urteko ekainean baino % 29,7 gehiago.

Sexuaren arabera, langabeziak nabarmen egin du gora gizonen zein emakumeen kasuan. Dena den, langabeen kopuruaren gorakada handiagoa izan da gizonen artean

emakumeen artean baino (% 39,1 eta % 22,9, hurrenez hurren), 2020ko ekaineko eta 2019ko ekaineko datuak alderatuz gero.

Termino erlatiboetan, industrian eta zerbitzu-sektorean izan zen langabeziaren hazkunderik handiena (% 33,5ekoa eta % 32,0koa, hurrenez hurren). Ondoren, lehen sektorean eta eraikuntzan handitu zen gehien langabezia (hurrenez hurren, % 20,7 eta % 18,6). Bestalde, aurreko enplegurik ez zutenen artean erregistratutako langabeziak % 22,2 egin zuen gora.

Bestalde, Eustaten Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren (BJAren) arabera, EAeko langabezia-tasa % 10,8koa izan da 2020ko bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko berean baino puntu bat handiagoa, alegia. Sexuaren arabera, gizonen langabezia-tasak 1,9 puntu egin du gora, eta % 10,9ra iritsi da; emakumeen langabezia-tasak ez du aldaketarik izan, eta % 10,6an jarraitu du.



Halaber, urtetik urterako datuen arabera, ekonomiako sektore pribatuan, 40.000 langile gutxiago daude, eta langile publikoen kopurua handitu egin zen (+3.400). Oro har, biztanleria landunen kopurua txikitu egin zen (36.600 pertsona), eta, beraz, ekonomiako sektore pribatuan gertatu zen doikuntza hori, BJAk emandako informaziotik ondorioztatzen denez.

Esan behar da lana galdu duten langileen zati handi bat ez dela langabeen artean sartu; izan ere, hala izan balitz, langabezia-tasa askoz handiagoa izango zatekeen.

Hain zuzen ere, 2020ko bigarren hiruhilekoko biztanleria landuna aurreko urteko hiruhileko berekoarekin alderatzen badugu —36.600 pertsona gutxiago dira—, ohartuko gara zati bat soilik sartu dela biztanleria langabeen, eta gainerakoak biztanleria ez-aktiboan txertatu direla, batez ere lanik bilatzen ez dutelako, enplegua bilatzeko ekintza aktiborik egiten ez dutelako edo erretiroa hartu dutelako.

Biztanleria ez-aktiboaren gorakada handi horri (eta biztanleria aktiboaren beherakadari) esker, langabezia-tasa, lehen esan bezala, puntu bat baino ez da handitu, % 10,8ra iritsi arte.

Segur aski, pandemiak eragindako konfinamenduaren eta jarduera etetearen eraginez zailagoa izan da lana bilatzea, eta, kasu askotan, ezinezkoa. Aurreikuspenen arabera, baina, egoera hori aldatu egingo da etorkizunean.

Hurrengo hiruhilekoetan biztanleria ez-aktibo horren zati bat lan-merkatura itzultzen bada, langabezia-tasak gora egin dezake. Gainera, kontuan hartu behar da langabezia-tasak gora egin dezakeela pandemiaren ondorioz aldi baterako ezinbesteko enplegu-erregulazioko espedienteetarako ezarritako ohiz kanpoko laguntzak amaitzean ere.

6. KOADROA.
BIZTANLERIA LANDUNA, LANGABEA ETA EZ-AKTIBOA

	Biztanle aktiboak	Biztanle landunak	Biztanle langabeak	Biztanle ez-aktiboak
2020ko II. hiruhilekoa	1.023.600	913.200	110.400	839.600
2019ko II. hiruhilekoa	1.052.800	949.800	103.100	799.100
Aldakuntza	-29.200	-36.600	7.300	40.500

Iturria: Eustat